



## **EBAZPENA (2/2010 esp., AROTZERIAKO MERKATARITZA- BALDINTZAK)**

### **Osoko bilkura**

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2011ko martxoaren 2an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta María Pilar Canedo Arrillaga andrea txostengile dela, ebazpen hau egin du AROTZERIAKO MERKATARITZA-BALDINTZEI buruzko 2/2010 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L* merkataritza-etxeak ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zuen *BRICOVAYLE VITORIA, S.L.* enpresak, ustez, lehia murrizteko jardunbideak egin zituela.

### **AURREKARIAK**

1. 2009ko abenduaren 14an, *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.* enpresak aurkeztutako salaketa sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (LDEZ). Hona hemen, hitzez hitz:

“SALATUTAKO GERTAKARIAK:

*Carpintería Hnos. ARBERAS, S.L. enpresak hamar urte baino gehiagoko merkataritza-harremana du BRICOLAYLE VITORIA S.L. enpresarekin, eta harreman hori normal samarra izan da 2009-11-26ra arte. Egun horretan material bila joan ginen eta biltegiko arduradunak esan zigun baldintzak aldatu zirela gure enpresarentzat eta ezin zigula materialik eman kutxatik igaro gabe (gaur egun inolako zorrik ez dugula). Aurretiaz itundutako ordainketa-baldintzak ditugu, eta aipatu den merkataritza-harremanaren ondoriozko faturekin egiazta daiteke hori. Harremana aldatu egin da Carpintería Hnos. ARBERAS S.L. enpresak BRICOLAYE VITORIA S.L. enpresa salatu behar izan zuenetik. Salaketa ipini behar izan genuen ez zuelako hornitu zigun gidaridun leihate baten bermea estali nahi izan. Carpintería Hnos. ARBERAS S.L. enpresak uste du, gai horretan ados ipintzea lortzen ez dugunez, horretarako daudela justizia-auzitegiak, baina enpresa honek ere uste du errepresaliek desabantaila handia eragiten digula gure lehiakideekin alderatuz [...].*



- LDEZk eskatuta, 2010eko urtarrilaren 14an, salaketa hori osatu zuen merkataritza-etxe salatzaileak.
2. 2010eko apirilaren 23an erabaki-proposamena bidali zion LDEZk LDEAri, bai eta bidezko administrazio-espeditentea ere, LDEZ, 8/2009).
  3. Espediente hori 2/2010 zenbakiarekin (Arotzeriako merkataritza-baldintzak) izapidetu da LDEAn.
  4. Auzitegiak 2011ko martxoaren 2ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, María Pilar Canedo Arrillaga andrea zela txostengilea.

### ZUZENBIDE-OINARRIAK

5. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, lkerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeke aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*
6. Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
7. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak (Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen Dekretua aldatu zuen martxoaren 4ko 36/2008 Dekretuak aldatu zuena), alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak beren eginkizunei dagokienez Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluaekin bat etorritik.
8. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak, *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.* enpresak ipinitako salaketa aztertuta, zehapen-



espedienterik ez irekitzeko eskatu dio Auzitegi honi, ez dagoelako Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aginduak hautsi izanari buruzko zantzurik.

9. Auzitegi hau guztiz ados dago LDEZren ebazpen-proposamenarekin salatu diren gertakarietara dagokienez. Izan ere, ez da uste lehiari buruzko araudia hautsi izanaren arrazoizko zantzurik ondoriozta daitekeenik gertakari horietatik, ondoren adieraziko diren arrazoiak direla eta.
10. *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.* merkataritza-etxeak *BRICOVAYLE VITORIA, S.L.* enpresaren kontrako salaketa ipini du LDEZn. Salatzaileak lehiaren defentsari buruzko araudiaren kontraketaz jo eta LDEZri jakinarazi dizkion gertakarietara adierazten dute salatutako merkataritza-etxeak aldatu egin dituela hamar urtean *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.* bezeroarekin mantendu izan dituen merkataritza-baldintzak. Hain zuzen ere, enpresa horrekin dituen merkataritza-baldintzak beste alderdiarekin adostu gabe aldatzean, 300 euro baino gutxiagoko hornikuntzak ordaintzeko baldintzak baino ez dira aldatu. Lehen hamabost egunero egiten zen fakturazioa, eta hitzez itundutako ordainketa laurogeita hamar egunean igortzen zen; orain, aldiz, eskura ordaindu behar dira 300 euro baino gutxiagoko hornikuntzak.
11. Aurreko gogoeta faktiko horietara dagokienez, LDEA honek Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearekin alderatu behar ditu, salaketan azaldutako gertakarietara lehiaren defentsari buruzko araudia hausten duten aztertuz, bai kolusiozko jokabidea direlako (1. artikulua), bai nagusitasunezko egoeraren abusua direlako (2. artikulua), edo bai lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzak direlako (3. artikulua).
12. Lehiaren defentsari buruzko legearen 1. artikulua debekatutako jokabidetzat hartzen du *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jardura oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea*. Premisa gisa, arau hori aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da alde biko edo alde anitzeko adostasunezko elementuren bat egotea. Halaxe adierazi zuen dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak hainbat ebazpenetan, esaterako 2000ko martxoaren 22ko ebazpenean (r 397/99 espedientea, Canteras del Bierzo), 2002ko urtarrilaren 17ko ebazpenean (510/01 espedientea, Fujifilm), 2001eko ekainaren 11ko ebazpenean (490/00 espedientea, Repsol), besteak beste.

Aztertzen gabiltzan kasuan ez da inolako akordiorik ondorioztatatu, ez berenberegikoa ez isilekoa, ez alde biko edo taldekoa. Aldiz, merkataritza-etxe batek bere helburua garatzean hartu duen alde bakarreko erabakia da bakarrik. Gauzak horrela, esan litekeen gauza bakarra da ez dela inolara ere urratu Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua.



13. Nagusitasunezko egoeraren abusuari dagokionez, Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako Legearen 2. artikulua debekatu egiten du *enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean*. Debekatuta dagoena ez da merkatuan nagusitasunezko egoera izatea, baizik eta egoera horren abusua egitea.

Auzitegi honek aztertutako espedientetik ezin da ondorioztatu BRICOVAYLE VITORIA, S.L. merkataritza-etxeak nagusitasunezko egoera duenik probintzia-eremuan zura, listoiak, oholak, atek eta zurez erdilantutako produktuak merkaturatzeko handizkako merkatuan. Aldiz, LDEZk Auzitegi honek irizteko eman duen ebazpen-proposamenean azaldu duen bezala, Arabako lurralde historikoan arotzeria-enpresa batek gutxienez 4 biltegi-zainen artean<sup>1</sup> aukera dezake behar dituen produktuak eskuratzeko; hala ere, beste informazio-iturri batzuen arabera, 18 izango lirateke<sup>2</sup>. Gainera, enpresa horietatik batek ere ez du azaltzen merkatuan nagusitasunezko egoera izateko aukera (merkatu-kuota handia edo berariazko beste ezaugarri batzuk<sup>3</sup>) eta, ondorioz, bere lehiakide edo bezeroekiko modu independentean jarduteko aukera emango dion zantzurik.

Hala eta guztiz ere, BRICOVAYLE VITORIA, S.L. merkataritza-etxeak merkatu adierazgarrian nagusitasunezko egoera izango balu ere, ordainketa-baldintzak aldatu izana (*2008ko uztailaren 1etik aurrera ageriko ordainagiriaren bitartez ordaindu beharko dira 300 € baino gutxiagoko fakturak*) ez litzateke abusuzko jokabidea izango, irabazi adierazgarri handiagoa eskuratzeko edo *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.* bezeroa merkatutik kanporatzeko helburua izango lukeena. Hain zuzen ere, gaur egungo egoera ekonomikoan 300 €-ko zenbatekoa ezartzea eskuz edo epeka ordaintzeko muga gisa ezin da kalte handia izan, eta ez da nahikoa enpresa bat merkatutik kanporatzeko, beste lehiakide batzuen onerako. Kontuan izan behar da *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.*k beste hornitzaile batzuk izan ditzakeela merkatu adierazgarrian eta, gainera, espedientean ere egiaztatu dela beste hornitzaile bat erabiltzen duela (*EZPELETA-PLASTIVAL, S.A.*), nahiz eta gutxiagotan.

Horretaz guztiaz gain, ez da ahaztu behar *CARPINTERÍA HERMANOS ARBERAS S.L.*k, "BRICOVAYLE VITORIA, S.L."k ezarritako merkataritza-harreman berriei egokitzearen, 300 eurora heldu arte multzokatu litzakeela

<sup>1</sup> Iturria: Informe Sector de la madera y el Mueble de SEA Empresarios Alaveses.

<sup>2</sup> SABI datu basea hartuta, 18 enpresak dute NACE Rev. 2 kodea (Zuraren, eraikuntzako gaien eta bainugelako tresnen handizkako merkataritzaren atala). Páginas Amarillas gidan 18 enpresa agertzen dira Egurra Jarduera: Biltegiak atalean.

<sup>3</sup> Izan ere, produktuaren ezaugarriak (neurri eta osaketa estandarrekoak, beraz, gutxi bereizitakoak) kontuan hartuta, nabarmen aldatzeak, besteak beste, prezio, kalitate edo beste merkataritza baldintzak, argi dago hornitzailearen aldaketa ekarriko dutela, eta horrelako erabakietan zer esan gutxi izango dute produktuen zenbait ezaugarriak, adibidez, kolorearen ñabardura edo diseinuak.



hornikuntza-eskaerak, eta ohiko hornitzailearekin zituen merkataritza-harremanetan orain arte zituen merkataritza-baldintzen onurak eskuratu.

Azkenik aipatu behar da, nolana ere, "BRICOVAYLE VITORIA, S.L."k ez lukeela inolako onura ekonomikorik eskuratuko, baizik eta guztiz kontrakoa: ordainketa-baldintzak aldatuz, ohiko bezeroa galtzeko arriskua hartzen du.

Adierazitako guztia kontuan hartuta ondorioztatu behar dugu LDEA honek aztertutako gertakarietan ez dela ikusi nagusitasunezko egoeraren abusurik aipatutako merkaturan eta, ondorioz, ez dela ikusi Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua urratu denik.

14. Azkenik, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 3. artikulua erekin alderatu behar dira LDEZri jakinarazi zitzaizkion gertakariak. Arau horren bitartez, Lehiaren Defentsari buruzko legeak debekatu egiten ditu *lehia desleialeko egintzak, hain zuzen ere lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten diotenak*.

Aztertu den kasuan ez da agertzen Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 3. artikulua urratzeko oinarritzko baldintza, hau da, lehia askea faltsutzea eta, beraz, ezin da ezer aztertu interes publikoari egindako eraginari buruz.

## EBAZPENA

**BAKARRA:** Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espeditierik ez irekitzeko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsua, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 2a



**LEHENDAKARIA**  
**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

**LEHENDAKARIORDEA**  
**JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**KIDEA**  
**M<sup>a</sup> PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**